



**OTA BIDEZKO KOLONOGRAFIA EGITEKO PRESTAKETA  
PREPARACIÓN COLONOGRAFIA TC**

Erradiologiako proba hau egiteko beharrezkoa da hesteak zorrotz garbitzea.

*Mesedez, bete jarraibide hauek.*

Probaren **aurreko 3 egunetan**, hondakinik gabeko dieta bete behar duzu.

• **Proba egin baino 3 egun lehenago:**

Hondakinik gabeko dieta:

- Koiperik gabeko salda iragaziak (barazki-saldarik ez).
- Egositako edo plantxan egindako okelak eta arrainak (oilaskoa, zekorra, indioilarra, legatza...).
- Infusioak.
- Iragazitako fruta-urak (bahetuak).
- Esneki eta zuntza duten produkturik ez hartu.
- Egunean gutxienez 2 litro ur (gasdun likidorik ez).

• **Proba egin baino 2 egun lehenago:**

- Aurreko dieta horrekin jarraitu, eta gosariarekin, bazkariarekin eta afariarekin **7,5 cc Gastrografin** hartu (edalontzi bat uretan disolbatuta).

• **Probaren aurreko egunean:**

- **Gosaria:** infusio 1; fruta-ur edalontzi 1 (iragazita); 200 cc osagarri dietetiko; 7,5 cc Gastrografin, (edalontzi bat uretan disolbatuta).
- **Goiz erdian:** infusio 1; 200 cc osagarri dietetiko; 7,5 cc Gastrografin (edalontzi bat uretan disolbatuta).
- **Bazkaria:** fruta-ur edalontzi 1 (iragazita); salda 1; 200 cc osagarri dietetiko; 7,5 cc Gastrografin, (edalontzi bat uretan disolbatuta).
- **Askaria:** infusio 1; 200 cc osagarri dietetiko; 7,5 cc Gastrografin (edalontzi bat uretan disolbatuta).
- **Afaria:** fruta-ur edalontzi 1 (iragazita); salda 1; 200 cc osagarri dietetiko; eta 7,5 cc Gastrografin, (edalontzi bat uretan disolbatuta).

• **Probaren egunean: proba egin baino 4-5 ordu lehenago**

- Infusio bat
- 7,5 cc Gastrografin, (edalontzi bat uretan disolbatuta).
- Probaren egunean bertan, goizean, uzkitik Micralax hartu behar da.

Telefonoa: 943035303

Se le va a realizar una prueba radiológica que necesita una rigurosa limpieza intestinal.

*Por favor, siga las instrucciones abajo señaladas.*

Durante los **3 días anteriores** a la prueba llevará una dieta sin residuos.

• **3 Días antes del examen:**

Dieta sin residuos:

- Consomé filtrados y sin grasa (no de verduras).
- Carnes o pescados cocidos o a la plancha ( pollo, ternera, pavo, merluza...)
- Infusiones.
- Zumos filtrados (colados).
- Evitar productos lácteos y productos con fibra.
- 2 litros de agua mínimo al día ( evitar líquidos que contengan gas).

• **2 Días antes del examen:**

- Seguir la dieta anterior y en desayuno, comida y cena tomará **7,5cc de gastrografin** disuelto en un vaso de agua.

• **Día anterior al examen:**

- **Desayuno:** 1 infusión, 1 vaso de zumo (colado), 200cc de complemento dietético, 7,5cc de gastrografin disuelto en un vaso de agua.
- **Media mañana:** 1 infusión, 200cc de complemento dietético, 7,5cc de gastrografin disuelto en un vaso de agua.
- **Comida:** 1 vaso de zumo (colado), 1 consomé, 200cc de complemento dietético, 7,5cc de gastrografin disuelto en un vaso de agua.
- **Merienda:** 1 infusión, 200cc de complemento dietético, 7,5cc de gastrografin disuelto en un vaso de agua.
- **Cena:** 1 vaso de zumo (colado), 1 consomé, 200cc de complemento dietético, y 7,5cc de gastrografin disuelto en un vaso de agua.

• **Día de la prueba: 4-5 horas antes de la prueba**

- Una infusión
- 7,5cc de gastrografin disuelto en un vaso de agua.
- El mismo día de la prueba por la mañana aplicarse Micralax vía anal.

Tlfn: 943035303